



Eusko Jaurlaritzaren Gazte Planaren urteko jarraipenaren ebaluazioa: 2022ko txostena

#V gazte plana

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA
Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren
Idazkaritza Nagusia
Gazteria Zuzendaritza

PRESIDENCIA
Secretaría General de Transición Social
y Agenda 2030
Dirección de Juventud

Aurkibidea

1. SARRERA	2
1.1. Aurrekariak eta testuingurua	3
1.2. Ebaluazioaren helburuak eta aplikatutako metodologia	7
2. EMAITZA NAGUSIAK	9
2.1. 2022ko programazioaren gauzatze-maila	10
2.2. 1. ARDATZA: Emantzipazioa (Bizi)	14
2.3. 2. ARDATZA: Garapena (Gozatu)	16
2.4. 3. ARDATZA: Eragina (Eraldatu)	18
2.5. 4. ARDATZA: Behaketa eta Koordinazioa	20
2.6. 2022ko programazioaren aurrekontu-gauzatzea	21
2.7. Estaldura-maila	24
2.8. 2022rako aurreikusitako helburuen betetze-maila	25
3. BALORAZIOA. ONDORIOAK	26
4. 2022-2026 ALDIRAKO V. GAZTE PLANAREN ADIERAZLEAK	28
5. ERANSKINA: 2022ko EBALUAZIOA ARDATZ, ARLO, HELBURU ETA JARDUKETA-ILDOEN ARABERA	30



1.

SARRERA

1. Sarrera

1.1. Aurrekariak eta testuingurua

Eusko Jaurlaritzaren V. Gazte Plana (2022-2026) gazteei buruzko martxoaren 10eko 2/2022 Legea onartu ondoren egiten den lehena da. Lege horren hiru ardatz nagusiak honako hauek dira: gazte-sistema eta -zerbitzuak finkatzea, gazteen parte-hartzea sustatzea eta emantzipazio-prozesuak bultzatzea, eta, batez ere, gazteen emantzipazio-adina aurreratzearen helburua azpimarratzea, 2030eko hamarkadan 28 urtekoa izan dadin.

2022-2026 aldirako V. Gazte Planak Eusko Jaurlaritzak gazte-politika integrala garatzeko eta gazteen emantzipazioa bultzatzeko hartutako konpromisoari erantzuten dio. Planak 4 ardatz estrategiko, 15 esku-hartze arlo, 33 helburu eta 73 jarduera-ildo ditu.



1. ARDATZA: EMANTZIPAZIOA: (BIZI)		
Arloa	Helburua	Jarduketa-ildoak
1. ENPLEGUA	1.1. Gerturatze eta abiadura handiagoa lortzea hezkuntza- eta lan-arloaren trantsituan	1.1.1. Prestakuntza lan-merkatuaren eskaerari egokitzea 1.1.2. Prestakuntza-sistema dualaren garapen integrala 1.1.3. Talentua itzultzen eta erakartzen laguntzeko programak ezartzea eta indartzea
	1.2. Kalitatezko enplegua duten gazteen kopurua handitzea	1.2.1. Lehen lan-esperientziak bultzatzea 1.2.2. Esperientzia duten gazteak kontratatzeko laguntza 1.2.3. Kalitatezko enplegu-aukerak sustatzea, bereziki sektore estrategikoetan 1.2.4. Gizarte- eta lan-arloko informazioa eta orientazioa hobetzea 1.2.5. Enplegarritasuna aktibatze eta hobetzeko prestakuntza indartzea
	1.3. Prebentzio-kultura eta laneko segurtasuna eta osasuna hobetzea	1.3.1. Laneko osasunari eta arriskuen prebentzioari buruzko informazioa, sensibilizazioa eta prestakuntza bultzatzea 1.3.2. Lan-ingurunean osasunaren zaintza indartzea, ezbehartasuna prebenitzeko
	1.4. Gazte ekintzaileen kopurua handitzea	1.4.1. Bokazio eta ekimen ekintzaileak bultzatzea, bereziki emakumeen artean 1.4.2. Ekintzailetza eta gizarte-ekonomia sustatzea 1.4.3. Landa-ingurunean eta itsasertzean enplegua eta gazte-ekintzailetza sustatzea
	1.5. Baztertuta geratzeko arriskuan dauden gazteen laneratzean aurrera egitea	1.5.1. Langabezian eta egoera zaurgarrian dauden gazteen prestakuntza eta gaikuntza hobetzea 1.5.2. Orientazioa eta laguntza espezifikoak indartzea
	1.6. Tratu-berdintasunean eta diskriminaziorik ezean aurrera egitea	1.6.1. Enplegurako sarbidean eta lanbide-sustapenean aukerak parekatze neurriak hartzea 1.6.2. Emakumeen eta gizonen soldatak parekatze ekintzak bultzatzea 1.6.3. Lana eta familia bateragarri egitea bultzatzea
2. ETXEBIZITZA	2.1. Etxebizitza eskuratzeko aukerak zabaltzea	2.1.1. Etxebizitza babestuaren lehentasunezko erreserba ezartzea 2.1.2. Laguntza ekonomikoen sistema eta alokairua sustatzeko programak indartzea
3. ERRENTA	3.1. Errenta erabilgarria hobetzea	3.1.1. Gazteen emantzipazioa errazteko laguntza eta mailegu berriak ezartzea
4. KOHESIOA	4.1. Baztertuta geratzeko arrisku-egoerak prebenitzea	4.1.1. Diru-sarrerak bermatzeko tresnen bidez oinarritzko premiak estaltzeko behar beste baliabide bermatzea 4.1.2. Kalteberatasun-egoerak prebenitzeko eta esku hartzeko ekintzak bultzatzea
5. ERRESILIENTZIA	5.1. Emantzipaziorako kultura-eraldaketa bultzatzea	5.1.1. Emantzipazio-prozesuan aholkularitza- eta laguntza-ekintzak indartzea

2. ARDATZA: GARAPENA (GOZATU)		
Arloa	Helburua	Jarduketa-ildoak
6. OSASUN INTEGRALA	6.1 Osasun mentala eta emozionala hobetzea	6.1.1. Ongizaterako eta osasun mentalerako hezkuntza 6.1.2. Arreta eta prebentzioa antsietate- eta depresio-egoerentarako
	6.2. Arrisku-portaerak eta/edo adikzioak (sustantziarekin edo gabe) prebenitzea gazteen artean, eta kontsumitzen hasteko adina atzeratzea	6.2.1. Tabakoaren, alkoholaren, cannabisaren eta beste substantzia batzuen kontsumoaren arriskuei buruzko sentsibilizazioa eta prebentzioa 6.2.2. Jokoari eta sare sozialei lotutako arriskuen inguruko sentsibilizazioa eta prebentzioa 6.2.3. Trafiko-istripuen inguruko sentsibilizazioa eta prebentzioa
	6.3. Sexu-bizitza osasuntsua sustatzea	6.3.1. Heziketa afektibo-sexuala bultzatzea 6.3.2. Sexu-transmisiozko gaixotasunak prebenitzeko neurriak indartzea
	6.4. Ohitura osasungarriak sustatzea	6.4.1. Elikadura osasungarria sustatzea 6.4.2. Jarduera fisikoa eta aisialdi osasungarria sustatzea
7. HEZKUNTZA	7.1. Aukera-berdintasunean aurrera egitea	7.1.1. Derrigorrezko eskolaldiaren ondorengo ikasketak egiteko eta amaitzeko neurriak hartzea, batez ere zailtasunak dituzten ikasleen artean 7.1.2. Eskola inklusiboa, hezkidetzakoa eta multikulturala sustatzea 7.1.3. Gaitasun handiko ikasleentzako hezkuntza-arreta
	7.2. Berdintasunerako eta arrisku-egoeren prebentziorako hezteak	7.2.1. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako prestakuntza eta genero-indarkeriaren prebentzioa 7.2.2. Arrisku-egoerak prebenitzeko prestakuntza
	7.3. Gazte eleaniztun gehiago lortzea	7.3.1. Hezkuntzaren eremu formalean euskara sustatu eta indartzea 7.3.2. Hizkuntza-gaitasunak garatzea beste hizkuntza batzuetan, mundura gehiago irekitzeko oinarri gisa
	7.4. Ikertzaile gazteen presentzia handitzea	7.4.1. Ikerketa-bokazioak bultzatzea etapa goiztiarretatik 7.4.2. Gazte ikertzaile eta teknologentzako laguntza, bereziki emakume ikertzaileentzako
8. KULTURA ETA EUSKARA	8.1. Kulturaren kontsumoa eta gazteei zuzendutako zein gazteek sortutako kultura-jarduerak bultzatzea	8.1.1. Kultura-jarduerak sustatzea 8.1.2. Teknologiaren bidez kultura eskuratzeko modu berriak bultzatzea 8.1.3. Irakurtzeko ohitura sustatzea
	8.2. Euskararen erabilera sustatzea	8.2.1. Aisialdiko eremuetan euskararen erabilera bultzatzea eta kultura-produktuen euskarazko kontsumoa sustatzea 8.2.2. Euskara ikusarazten eta balioesten duten ekimenak bultzatzea
9. AISIA ETA DENBORA LIBREA	9.1. Aisialdian hezkuntza bultzatzea	9.1.1. Aisialdi hezitzailean parte hartzen duten eragileen sistema babestea eta indartzea
		9.1.2. Aisialdiko eta denbora libreko alternatibak sustatzea

3. ARDATZA: ERAGINA (ERALDATU)		
Arloa	Helburua	Jarduketa-ildoak
10. PARTAIDETZA	10.1. Gazteen parte-hartzea eta aintzatespena bultzatzea	10.1.1. Gazteek parte hartzeko eredu eta elkarrizketa-gune berriak bultzatzea 10.1.2. Gazte asoziazionismoaren ekimenak babestea 10.1.3. Gazte-boluntariotza bultzatzea 10.1.4. Talentu gazteen aintzatespena indartzea
11. BERDINTASUNA	11.1. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean eta erantzunkidetasunean aurrera egitea	11.1.1. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea gizarte osoan 11.1.2. Emakumeen eta gizonen kontziliazio erantzunkidea bultzatzea
	11.2. Emakumeen aurkako indarkeria errotik kentzea	11.2.1. Sentsibilizazio- eta prebentzio-neurriak hartzea (zero tolerantzia) 11.2.2. Arreta integrala eta kaltearen konponketa indartzea
	11.3. Emakumeak ahaldunduz	11.3.1. Emakume gazteen ahaldunduz pertsonalerako eta kolektiborako laguntza 11.3.2. Emakume gazteek eremu eta gune guztietan parte har dezaten bultzatzea
12. ANIZTASUNA	12.1. Sexu- eta genero-aniztasuna txertatzea	12.1.1. Sexu- eta genero-aniztasuna ikusarazteko eta bermatzeko neurriak bultzatzea
	12.2. Aniztasun funtzionala txertatzea	12.2.2. Irisgarritasun unibertsala eta bizimodu independentea sustatzea
13. BIZIKIDETZA	13.1. Indarkeria eta tratu txar egoerak errotik kentzea	13.1.1. Gurasoen aurkako indarkeriaren eta tratu txarren detekzioa, prebentzioa eta arreta indartzea 13.1.2. Eskolako jazarpenaren (bullying eta ziberbullying) detekzioa, prebentzioa eta arreta indartzea 13.1.3. Aisialdian, kirolean eta kalean indarkeriaren detekzioa, prebentzioa eta arreta indartzea
	13.2. Balioetan hezteak	13.2.1. Herritartasun globalerako, giza eskubideetarako, bizikidetzarako eta aniztasunerako hezkuntza sustatzea
14. KLIMA-ALDAKETA	14.1. Jasangarritasunarekin eta planetaren zaintzarekin konprometitutako gazte gehiago izatea	14.1.1. Ingurumen-hezkuntza, ekonomia zirkularra eta kontsumo arduratsua bultzatzea 14.1.2. Mugikortasun jasangarria sustatzea
4. ARDATZA: BEHAKETA ETA KOORDINAZIOA		
Arloa	Helburua	Jarduketa-ildoak
15. EZAGUTZA ETA LANKIDETZA	15.1. Gazteen egoera hobeto ezagutzea eta ebaluatzea	15.1.1. Euskadiko gazteei buruzko azterlanak egitea 15.1.2. Gazte-politiken ebaluazioa eta jarraipena 15.1.3. Gazteekin lan egiten duten profesionalen ezagutza eta prestakuntza zabaltea
	15.2. Gazteei informazioa eta aholkularitza ematea	15.2.1. Gazteentzako orientazio- eta aholkularitza-zerbitzuak ematen laguntzea
	15.3. Lankidetzak eta elkarlana hobetzeak gazteriaren arloan	15.3.1. EGKren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko koordinazioa eta lankidetzak bultzatzea 15.3.2. Erakunde publikoen eta pribatuen arteko partaidetzak sustatzea

Txosten honen helburua da 2022ko Plan Operatiboaren betearazpenari buruzko jarraipen-ebaluazio bat egitea. Ekintzen gauzatze-maila, ezarritako helburuen betetze-maila eta gauzatutako finantza-gastua aztertzen dira.

Txostena Eusko Jaurlaritzaren Gazteria Planaren Sailarteko Batzordeak aurkeztuko du, baliozkotu dezan. Izan ere, koordinazio-organo horrek gazteria-arloko ekintzen garapena eta aplikazio eraginkorra bermatzen ditu, eta jarduera horiek sustatzeko ardura duen organoa ere bada.

1.2. Ebaluazioaren helburuak eta aplikatutako metodologia

V. Gazte Planaren jarraipen-ebaluazioak zehaztutako programazioaren barne-kontrolari eta -kudeaketari erantzuten dio. Egindako azterketaren helburua da, oro har, Eusko Jaurlaritzaren V. Gazte Planak 2022an zehar izan duen garapen-maila ezagutzea.

Zehazki, ebaluazio honek honako helburu hauek ditu:

- Ekintzen gauzatze-maila neurtzea.
- Aurrekontuaren gauzatze-maila egiaztatzea, eta hasiera batean aurreikusitako aurrekontuarekiko desbideratzerik egon daitekeen ikustea.
- Gazte Planaren benetako estaldura-maila ezagutzea.
- Proposatutako helburuak eta ezarritako xede-balioak betetzen direla egiaztatzea.

Jarraipen- eta ebaluazio-prozesu hau V. Gazte Planaren datuak biltzeko, jarraipena egiteko eta ebaluatzeko berariaz diseinatutako tresna informatikoaren bidez egin da. Erabilitako metodologia Planean parte hartzen duten sail, zuzendaritza eta erakundeek emandako informazioaren (datu kuantitatiboak eta informazio kualitatiboak) eta adierazleen azterketan oinarritu da.

Ebaluazioa egiteaz arduratzen den eragileari dagokionez, kanpo-ebaluazioa da; izan ere, jarraitutako metodologiaren arabera, txosten hau 2022. urteko Plan Operatiboa gauzatzeaz arduratzen diren erakundeetatik edo eragileetatik independentea den kanpoko talde tekniko batek egin du.

2022an zehar gauzatutako ekintzak ebaluatzeko modu homogeneoan aplikatutako balorazio-irizpideak honako hauek dira:

- Jarduna, ikuspegi bikoitz batetik: programatutako ekintzak egitea eta aurrekontua gauzatzea, eskura dauden baliabideen erabilpenaren neurri gisa.
- Eraginkortasuna, lortu nahi diren helburuen eta xede-balioetan lortutako emaitzen arteko erlazio gisa, gauzatutako ekintzen arabera.
- Estaldura, gauzatutako ekintzen onuradun diren pertsonen edo erakundeen proportzio gisa. Irizpide horrek kontuan hartuko du, halaber, urteko Plan Operatiboak berariaz gazteei zuzendutako ekintzak zenbateraino jasotzen dituen.

Zehazki, txosten honetan aurkeztutako ebaluazioak galdera hauei erantzuten die:

- Urteko jarduera-plan operatiboa planifikatu zen moduan garatzen ari da? Zein da programatutako ekintzen aurrerapen- edo gauzatze-maila?
- Programatutako ekintzak abian jartzeko erabilitako bitartekoei dagokienez, zein da aurrekontuaren gauzatze-maila?
- Gazteen kolektibora iristen ari da?
- Munta-adierazleetan ezarritako xede-balioak lortzen ari dira? Zein mailatan ari dira betetzen ekintza bakoitzerako planteatutako helburuak?



2.

EMAITZA NAGUSIAK

2. Emaidza nagusiak


2.1. 2022ko programazioaren gauzatze-maila

V. Gazte Planean parte hartzen duten Eusko Jaurlaritzako sailek, zuzendaritzek eta erakundeek emandako informazioa erreferentziatzat hartuta, 2022an programatutako ekintzen gauzatze-maila oso handia izan dela egiaztatu da. Zehazki, 2022rako aurreikusitako 279 ekintzetatik¹ 260 gauzatu dira. Hau da, gauzatze-maila % 93koa izan da.

2022an ez da programazioan aurreikusitako 19 ekintza gauzatzea lortu (21 ekintza 2021ean). Aurreikusitako ekintzak ez egiteko aipatutako arrazoiaren artean, honako hauek nabarmendu behar dira:

- Ekintzak 2023ko programaziora atzeratu dira.
- Ekintzak ez dira egin beste ekintza batzuk lehenetsi direlako
- Ez da diru-laguntzetarako proiekturik jaso
- ...


V. Gazte Planeko ekintzen kopurua, 2022



¹ 9 ekintza gehitu dira, 2022an programatu ez zirenak. Bestalde, ez da informaziorik lortu 2022an programatutako zenbait ekintzei buruz, eta talde ebaluatzaileak egindakotzat hartu ditu 2023ko programazioan sartuta zeudela egiaztatu denean.

2022an 91 ekintza egin dira Emantzipazioa (bizi) sustatzeko, 93 ekintza Garapena (gozatu) ardatzean, 58 ekintza Eragina (eraldatu) ardatzean eta 21 ekintza Behaketa eta Koordinazioa ardatzean.

Programatutako ekintzen banaketa V. Gazte Planaren ardatzen arabera (%), 2022




Programatutako eta gauzatutako ekintzen kopurua, V. Gazte Planeko ardatzen arabera, 2022

Ardatza	Programatutako ekintzen kopurua	Gauzatutako ekintzen kopurua	Gauzatze-maila
1. ardatza: Emantzipazioa (Bizi)	100	91	% 91,0
2. ardatza: Garapena (Goizatu)	95	93	% 97,9
3. ardatza: Eragina (Eraldatu)	59	55	% 93,2
4. ardatza: Behaketa eta Koordinazioa	25	21	% 84,0
Guztira	279	260	% 93,2


Ardatzen arabera, egiaztatu da betetze-maila oso altua izan dela Planaren ardatz guztietan. Zehazki, betetze-maila % 91koa izan da Emantzipazioa 1. ardatzaren kasuan, % 98koa Garapena 2. ardatzaren kasuan eta % 93koa Eragina 3. ardatzaren kasuan. Behaketa eta koordinaziora bideratutako 4. ardatzean ere betetze-maila handia izan da, baina zertxobait txikiagoa (% 84).

Ekintzen gauzatze-maila, 2022ko Plan Operatiboan programatutakoekiko, ardatzen arabera



Gazte Planeko esku-hartze arloei erreparatuz, guztietan ekintzak egin dira 2022an, 3. arloan izan ezik, V. Planean zehaztutako arlo berria baita, eta gazteen errenta erabilgarria hobetzea du helburu. Enpleguaren arloa da ekintzen kopuru handiena biltzen duena, 81 ekintza baititu. Ondoren, bolumenaren arabera, Hezkuntza (39 ekintza), Osasun Integrala (28 ekintza) eta Kultura eta Euskara (24 ekintza) daude.

Gauzatutako ekintzen kopurua, 2022ko Plan Operatiboan programatutakoekin alderatuta, arloka



Programatutako eta gauzatutako ekintzen kopurua, V. Gazte Planeko arloen arabera, 2022

Arloa	Programatutako ekintzen kopurua	Gauzatutako ekintzen kopurua	Gauzatzemaila
1. Enplegua	89	81	% 91,0
2. Etxebizitza	3	3	100,0
3. Errenta	0	0	--
4. Kohesioa	5	5	% 100,0
5. Erresilientzia	3	2	% 66,7
6. Osasun integrala	28	28	% 100,0
7. Hezkuntza	39	39	% 100,0
8. Kultura eta euskara	25	23	% 92,0
9. Aisia eta denbora libre	3	3	% 100,0
10. Partaidetza	8	8	% 100,0
11. Berdintasuna	23	20	% 86,9
12. Aniztasuna	3	3	% 100,0
13. Bizikidetzatza	13	12	% 92,3
14. Klima-aldaketa	12	12	% 100,0
15. Behaketa eta koordinazioa	25	21	% 84,0
Guztira	279	260	% 93,2

Eusko Jaurlaritzako sail eta zuzendaritza/erakunde bakoitzak 2022an zehar izandako jardura aztertuta, ikusten da gauzatutako ekintzen kopuru handiena Gazteria Zuzendaritzak, Lanbidek, Familia eta Haurren Zuzendaritzak eta Kultura Sustatzeko Zuzendaritzak biltzen dutela.


Eusko Jaurlaritzako zuzendaritza edo erakunde bakoitzak programatutako eta gauzatutako ekintzen kopurua, 2022

Zuzendaritza/Erakundea	Programatutako ekintzen kopurua	Gauzatutako ekintzen kopurua
Gazteria Zuzendaritza	47	40
Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzua	29	27
Familia eta Haurren Zuzendaritza	22	19
Kultura Sustatzeko Zuzendaritza	17	15
Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritza	13	13
Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako Zuzendaritza	13	13
Emakunde – Emakumearen Euskal Erakundea	11	11
Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza	10	10
Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritza	8	8
Natura Ondarearen eta Klima Aldaketaren Zuzendaritza	8	8
Euskara Sustatzeko Zuzendaritza	7	7
HAZI	7	7
OSALAN – Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea	7	6
Jardura Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritza	6	6
Landaren eta Itsasertzaren Garapenerako eta Europar Politiketako Zuz. Enplegu eta Gizarteratze Zuzendaritza	5	5
Unibertsitate Politika eta Koordinazioko Zuzendaritza	5	5
Osakidetza	5	5
Kultura Ondarearen Zuzendaritza	4	3
Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza	4	3
Giza Eskubide, Biktima eta Aniztasun Zuzendaritza	3	3
Gizarte Ekonomia Zuzendaritza	3	3
Ikerketa Zuzendaritza	3	3
Joko eta Ikuskizun Zuzendaritza	3	3
Arrantza eta Akuikultura Zuzendaritza	3	2
Etxebizitzarako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritza	3	3
Trafiko Zuzendaritza	3	3
BASQUETRADE	2	2
Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritza	2	2
Segurtasuna Koordinatzeko Zuzendaritza	2	2
Justizia Zuzendaritza	2	2
Ertzaintzaren Zuzendaritza	2	2
Migrazio eta Asilo Zuzendaritza	2	2
Garraio Plangintzaren Zuzendaritza	2	2
Teknologia eta Berrikuntza Zuzendaritza	2	2
Garapen Lankidetzarako Euskal Agentzia	1	0
Kanpo Harremanen Zuzendaritza	1	1
Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritza	1	1
Merkataritza Zuzendaritza	1	1
Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuen Zuzendaritza	1	1
Turismo eta Ostalaritza Zuzendaritza	1	1
Kanpoan den Euskal Komunitatearentzako Zuzendaritza	1	1
Europar Batasunerako Zuzendaritza	1	1
Kontsumobide	1	1

2.2. 1. ARDATZA: Emantzipazioa (Bizi)

V. Gazte Planaren 1. ardatzean (Emantzipazioa) egindako ekintzekin hasita, datuek erakusten dute 91 ekintza gauzatu direla, 2022an programatutako 100 ekintzetatik. Nabarmentzekoa da enpleguaren arloan garatutako ekintza-bolumena (81 ekintza).

1. ardatzean "Emantzipazioa (Bizi)" gauzatutako ekintzen kopurua, arloka, 2022




Emantzipazioaren ardatzaren barruan, 2022an gauzatutako ekintzen kopuru handiena biltzen duten helburuak hauek dira: "Kalitatezko enplegua duten gazteen kopurua handitzea" eta "Gazte ekintzaileen kopurua handitzea", 34 eta 24 ekintza garatu baitira, hurrenez hurren.

1. ardatzean "Emantzipazioa (Bizi)" gauzatutako ekintzen kopurua, helburuen arabera, 2022



Arreta jarduketa-ildoetan jarrita, 2022an gauzatuak ekintzen bolumen handiena honako hauei dagokie: "Lehen lan-esperientziak bultzatzea", "Bokazio eta ekimen ekintzaileak bultzatzea, bereziki emakumeen artean", "Kalitatezko enplegu-aukerak sustatzea, bereziki, sektore estrategikoetan" eta "Landa-ingurunean eta itsasertzean enplegua eta gazte-ekintzailtza sustatzea".


1. ardatzean "Emantzipazioa (Bizi)" gauzatuak ekintzen kopurua, ildo nagusien arabera, 2022



2.3. 2. ARDATZA: Garapena (Gozatu)

2. ardatzean "Garapena (Gozatu)" 93 ekintza egin dira. Zehazkiago, 39 ekintza egin dira Hezkuntzaren arloan, 28 Osasun Integralean, 23 Kultura eta Euskaran eta 3 Aisia eta Denbora librean.

2. ardatzean "Garapena (Gozatu)" gauzatuakotako ekintzen kopurua, arloka, 2022



Helburuen artean, honako hauek nabarmendu behar dira: "Euskararen erabilera sustatzea" helburu duten 17 ekintza eta "Hezkuntza-sisteman aukera-berdintasunean aurrera egiteko" beste 17 ekintza. Grafikoan zehazten dira helburu espezifikoaren arabera egindako ekintzak.

2. ardatzean "Garapena (Gozatu)" gauzatuakotako ekintzen kopurua, helburuen arabera, 2022



Jarduketa-ildoen arabera, 2022an, honako hauek nabarmentzen dira garatutako ekintzen kopuruagatik: “Eskola inklusiboa, hezkidetzakoa eta multikulturala sustatzea” eta “Aisialdiko eremuetan euskararen erabilera bultzatzea eta kultura-produktuen euskarazko kontsumoa sustatzea”.


2. ardatzean “Garapena (Gozatu)” gauzatutako ekintzen kopurua, ildo nagusien arabera, 2022



2.4. 3. ARDATZA: Eragina (Eraldatu)

3. ardatzean "Eragina (Eraldatu)" 55 ekintza egin dira. Zehazki, 20 ekintza gauzatu dira Berdintasunaren arloan, 12 ekintza Bizikidetzaren arloan eta 12 ekintza Klima-aldaketaren arloan. Halaber, 8 ekintza garatu dira Partaidetzaren arloan eta 3 ekintza Aniztasunaren arloan.

3. ardatzean "Eragina (Eraldatu)" gauzaturako ekintzen kopurua, arloka, 2022




3. ardatzaren barruan, ekintza gehien gauzatu dituzten helburuak honako hauek dira: "Jasangarritasunarekin eta planetaren zaintzarekin konprometitutako gazte gehiago izatea" eta "Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean eta erantzunkidetasunean aurrera egitea".

3. ardatzean "Eragina (Eraldatu)" gauzaturako ekintzen kopurua, helburuen arabera, 2022



Jarduketa-ildoen artean, honako hauek nabarmendu behar dira: “Ingurumen-hezkuntza, ekonomia zirkularra eta kontsumo arduratsua bultzatzea”; “Gurasoen aurkako indarkeriaren eta tratu txarren detekzioa, prebentzioa eta arreta indartzea”; “Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea gizarte osoan”; “Emakumeen eta gizonen kontziliazio erantzunkidea bultzatzea” eta “Herritartasun globalerako, giza eskubideetarako, bizikidetzarako eta aniztasunerako hezkuntza sustatzea”.


3. ardatzean “Eragina (Eraldatu)” gauzatutako ekintzen kopurua, ildo nagusien arabera, 2022



2.5. 4. ARDATZA: Behaketa eta Koordinazioa

4. ardatzari dagokionez, 2022an 21 behaketa- eta koordinazio-ekintza burutu dira. Zehazki, 15 ekintza bultzatu dira "Gazteen egoera hobeto ezagutu eta ebaluatzea", 4 ekintza "Lankidetzeta eta elkarlana hobetzeko" eta 2 ekintza "Gazteei informazioa eta aholkularitza emateko".

4. ardatzean "Behaketa eta koordinazioa" gauzatuak diren ekintzen kopurua, helburuen arabera 2022



4. ardatzean "Behaketa eta koordinazioa" gauzatuak diren ekintzen kopurua, ildoka 2022




2.6. 2022ko programazioaren aurrekontu-gauzatzea

Jarraian, 2022an gauzatutako urteko Plan Operatiboaren betetze-maila aztertzen da, aurreikusitako aurrekontuarekiko egokitzapenaren ikuspegitik.

Egindako azterketaren emaitzak adierazten du 2022an burututako ekintzen bitartez 290 milioi euroko aurrekontua gauzatzea lortu dela, hau da, programatutako aurrekontuaren % 97, 2023ko ekaineko datuen arabera².


Ekintza batzuek ez dute programatutako aurrekontua betearaztea lortu, baina beste batzuetan programazioan aurreikusitakoa baino askoz gehiago gauzatu da. Gainera, esan behar da benetako aurrekontua handiagoa izango litzatekela, ekintza askok ez baitakarte aurrekontu zehatz bat zehaztuta, baliabide propioekin egiten baita gastu orokorren bidez, eta ezin baitira zenbatetsi.

V. Gazte Planean gazteriarri zuzenduta programatutako eta gauzatutako aurrekontua, 2022



V. Gazte Planaren ardatzen arabera, gauzatutako aurrekontuaren zenbateko handiena Emantzipazioari dagokio, 201 milioi euroko gastuarekin. Jarraian, gastuaren bolumenaren arabera, Garapenaren ardatza kokatzen da, 50 milioi euroekin. Eragina ardatzean 38 milioi euroko gastua gauzatu da.

V. Gazte Planean gazteriarri zuzenduta programatutako eta gauzatutako aurrekontua, ardatzen arabera, 2022



² Informaziorik lortu ez den eta 2023rako programatuta dauden jarduketetan, talde ebaluatzaileak aurreikusitako aurrekontua esleitu du gauzatutako aurrekontu gisa.


Aurrekontuaren gauzatze-maila oso handia izan da 1. ardatzean "Emantzipazioa" (% 94), 2. ardatzean "Garapena" (% 99) eta 3. ardatzean "Eragina" (% 111,7), eta azken ardatz horretan hasieran aurreikusitako aurrekontua gainditu da.

V. Gazte Planean gazteriarri zuzenduta programatutako eta gauzatutako aurrekontua, ardatzen arabera, 2022

	Programatutako aurrekontua	Gauzatutako aurrekontua	Aurrekontuaren gauzatze-maila
1. ardatza: Emantzipazioa (Bizi)	213.174.571,6	200.828.771,2	% 94,2
2. ardatza: Garapena (Gozatu)	50.510.314,2	50.462.421,3	% 99,9
3. ardatza: Eragina (Eraldatu)	34.054.253,4	38.054.029,4	% 111,7
4. ardatza: Behaketa eta Koordinazioa	926.480,5	585.635,5	% 63,2
Guztira	298.665.619,7	289.930.857,5	% 97,1

V. Gazte Planaren jarduketaren arabera, honako arlo hauetan gauzatutako aurrekontuaren garrantzia nabarmendu behar da: Enplegua (guztizkoaren % 28), Gizarte Kohesioa (% 21), Etxebizitza (% 20), Hezkuntza (% 15) eta Aniztasuna (% 11). Bestalde, 2022an aurreikusitakoaren gainetik gauzatu da honako arlo hauetan: Enplegua, Aniztasuna, Osasun Integrala eta Kultura eta Euskara.

V. Gazte Planean gazteriarri zuzenduta programatutako eta gauzatutako aurrekontua, arloka, 2022



Jarraian, Eusko Jaurlaritzako sail bakoitzak gazterian arreta jarrita programatu eta gauzatutako gastua zehazten da, zuzendaritzen eta erakundeen arabera banatuta.

V. Gazte Planean gazteriarri zuzenduta programatutako eta gauzatutako aurrekontua, 2022

Saila/Zuzendaritza	Programatutako aurrekontua, gazteriarri zuzenduta	Gauzatutako aurrekontua, gazteriarri zuzenduta
Lehendakaritza	10.371.167,7 €	5.567.250,5 €
Kanpo Harremanen Zuzendaritza	32.000,0 €	32.000,0 €
Gazteria Zuzendaritza	10.189.167,7 €	5.365.250,5 €
Kanpoan den Euskal Komunitatearentzako Zuzendaritza	70.000,0 €	90.000,0 €
Europar Batasunerako Zuzendaritza	80.000,0 €	80.000,0 €
Kultura eta Hizkuntza Politika Saila	4.213.691,0 €	4.323.551,0 €
Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritza	1.240.760,0 €	1.241.855,0 €
Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritza	213.500,0 €	224.250,0 €
Kultura Ondarearen Zuzendaritza	158.250,0 €	175.988,0 €
Kultura Sustatzeko Zuzendaritza***	711.181,0 €	676.700,0 €
Euskara Sustatzeko Zuzendaritza	1.890.000,0 €	2.004.758,0 €
Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila	11.180.426,7 €	10.629.240,2 €
BASQUETRADE	3.755.000,0 €	3.462.875,0 €
Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritza	1.596.103,0 €	1.596.103,0 €
Landaren eta Itsasertzaren Garapenerako eta Europar Politiketako Zuz.	1.662.500,0 €	328.910,1 €
Natura Ondarearen eta Klima Aldaketaren Zuzendaritza	1.937.937,7 €	1.939.012,0 €
Arrantza eta Akuikultura Zuzendaritza	345.506,0 €	203.878,0 €
Teknologia eta Berrikuntza Zuzendaritza	1.050.000,0 €	636.733,5 €
HAZI*	833.380,0 €	2.461.728,7 €
Hezkuntza Saila	70.623.896,2 €	74.394.568,3 €
Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritza	6.472.789,2 €	7.734.016,2 €
Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritza	850.000,0 €	843.569,0 €
Ikerketa Zuzendaritza	17.052.562,0 €	14.940.278,0 €
Unibertsitate Politika eta Koordinazioko Zuzendaritza	34.500.281,0 €	38.404.141,2 €
Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuen Zuzendaritza	78.360,0 €	82.705,0 €
Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako Zuzendaritza	11.669.904,0 €	12.389.859,0 €
Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila	23.973.721,4 €	23.960.966,7 €
Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia (Elankidetz)	20.000,0 €	- €
Giza Eskubide, Biktima eta Aniztasun Zuzendaritza	469.994,5 €	469.994,5 €
Familia eta Haurren Zuzendaritza***	7.240.250,9 €	7.184.317,8 €
Justizia Zuzendaritza	13.536.793,0 €	13.536.793,0 €
Migrazio eta Asilo Zuzendaritza	158.272,0 €	158.272,0 €
Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza	1.653.005,0 €	1.763.872,6 €
Emakunde – Emakumearen Euskal Erakundea	895.406,0 €	847.716,8 €
Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila	69.865.398,3 €	55.567.869,5 €
Garraio Plangintzaren Zuzendaritza	85.169,4 €	73.597,9 €
Etxebizitzarako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritza	69.780.228,9 €	55.494.271,6 €
Osasun Saila	3.346.590,0 €	3.829.726,0 €
Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza	2.330.400,0 €	2.903.016,0 €
Osakidetz	1.016.190,0 €	926.710,0 €
Segurtasun Saila	321.920,0 €	329.244,0 €
Segurtasuna Koordinatzeko Zuzendaritza	- €	- €
Joko eta Ikuskizun Zuzendaritza	90.000,0 €	97.900,0 €
Ertzaintzaren Zuzendaritza	- €	- €
Trafiko Zuzendaritza	231.920,0 €	231.344,0 €
Lan eta Enplegu Saila	104.521.194,8 €	111.103.565,5 €
Gizarte Ekonomia Zuzendaritza	750.000,0 €	893.700,0 €
Enplegu eta Gizarteratze Zuzendaritza	3.952.215,9 €	3.357.441,5 €
Lanbide** – Euskal Enplegu Zerbitzua	99.793.107,0 €	106.827.078,0 €
Osalan – Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea	25.872,0 €	25.346,0 €
Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saila	247.613,7 €	224.875,7 €
Merkataritza Zuzendaritza	128.000,0 €	111.200,0 €
Turismo eta Ostalaritza Zuzendaritza	25.000,0 €	19.062,0 €
Kontsumobide – Kontsumoko Euskal Institutua	94.613,7 €	94.613,7 €
Guztira	298.665.619,7 €	289.930.857,5 €

*HAZI: 2015-2020 aldirako Euskal Autonomia Erkidegoko LGParen esparruan onartutako Leader eremuko landa-udalerrien ekonomia sustatu, garatu eta dibertsifikatzeko laguntzen aurrekontua handitzea.

**Lanbide: Aurrekontua handitzea Lehen Aukera Programan eta Investigo Programan.


*** Talde ebaluatzaileak 2023rako programatutako jarduketetan aurreikusitakoa ezarri du gauzatutako aurrekontutzat.

Oharra: Beken kasuan, 2 aurrekontu-ekitaldiri eragiten dien ikasturteko gastua hartu da kontuan.

2.7. Estaldura-maila


Arreta programatutako ekintzen estaldura-mailan jarrita, nabarmendu behar da 2022an V. Gazte Planean gauzatutako ekintza guztietatik (260 ekintza) 183 ekintza burutu direla gazteei soilik zuzenduta (% 70) eta 77 ekintzek foku partziala izan dute gazteengan (% 30).

Gauzatutako ekintzen banaketa, gazteengan jarritako fokuen arabera, 2022



Xede-publikoari dagokionez, bi kategoria handi bereizten dira: erakunde onuradunak eta pertsonak. Ekintzen % 89an hartzaile nagusia "pertsonak" izan dira, eta gainerako % 11n "erakundeak". Biztanleria onuradunari buruz lortutako informazioaren arabera, emakumeen eta gizonen parte-hartzea oso antzekoa izan da.


V. Gazte Planeko ekintzetan izandako biztanleria onuradunaren banaketa, sexuaren arabera (%), 2022



2.8. 2022rako aurreikusitako helburuen betetze-maila


Eraginkortasunaren ikuspegitik, V. Gazte Planean 2022an zehar garatutako ekintzetan aurreikusitako helburuen betetze-maila handia da. Izan ere, gauzatutako ekintzen % 93k bete egiten dituzte ezarritako helburuak informatzaileek egindako balorazioaren arabera. Zehazki, aurreikusitako ekintza guztietatik, % 86k lortu du ezarritako helburu guztiak betetzea, eta % 7k, zati batean. Kasuen % 6an adierazi da ezin izan direla ezarritako helburuak bete, ekintzak ez baitira gauzatu. Bestalde, ekintzen % 1ean ezin izan da ezarri aurreikusitako helburua zenbateraino bete den, ebaluazio-prozesua egiteko unean informaziorik ez zegoelako.

V. Gazte Planean ezarritako helburuak betetzearen eraginkortasun-maila, 2022



Ezarritako xede-balioak betetzeari dagokionez, egindako ekintzen % 77k betetze-maila altua lortu du, % 17k ertaina eta gainerako % 6ak txikia.

V. Gazte Planean ezarritako xede-balioa betetzearen eraginkortasun-maila, 2022










3.

BALORAZIOA. ONDORIOAK

3. Balorazioa. Ondorioak

Hurrengo taulan, 2022an gauzatutako Plan Operatiboak ebaluazio-irizpideak zenbateraino bete dituen balioesten da, eta horietako bakoitzerako ondorio garrantzitsuenak aurkezten dira.

Ebaluazio-irizpidea	Betetze-maila	Ondorioak
Ekintzak gauzatzea <i>Programatutako ekintzak gauzatu izana</i>		Programatutako ekintzen % 93 gauzatu egin dira 2022an zehar.
Aurrekontua gauzatzea <i>Aurrekontuaren gauzatze-maila</i>		290 milioi euro gauzatu dira V. Gazte Planean 2022an zehar egin diren ekintzetan. Gauzatutako aurrekontua % 97koa izan da; ehuneko horrek programazioaren azpitik geratu diren ekintzak eta aurreikusitakoa baino aurrekontu handiagoa gauzatu duten ekintzak biltzen ditu.
Eraginkortasuna <i>Lortu nahi diren helburuen eta xede-balioetan lortutako emaitzen arteko erlazioa</i>		Egindako azterketari esker ondoriozta daiteke maila altua dagoela 2022an gauzatutako ekintzen eraginkortasunari dagokionez, gauzatutako ekintzen % 93k hasieran ezarritako helburuak bete dituztelako. Ezarritako xede-balioak betetzeari dagokionez, egindako ekintzen % 77k betetze-maila altua lortu du.
Estaldura <i>Soilik gazteei zuzendutako ekintzak</i>		Gauzatutako ekintzen % 70 gazteei soilik zuzenduta daude.

BETETZE-MAILA		
ALTUA	ERTAINA	BAXUA
		



4.

2022-2026 ALDIRAKO
V. GAZTE PLANAREN
ADIERAZLEAK

4. 2022-2026 aldirako V. Gazte Planaren adierazleak

Atal honetan, 2022-2026 aldirako V. Gazte Planaren esparruan zehaztutako adierazleen zerrenda jasotzen da, eta ebaluazio-txosten hau egiten den egunean eskuragarri dagoen azken balioa zehazten da.

4.1 Taula 2022-2026 aldirako V. Gazte Planaren adierazleen taula

ADIERAZLEA	Eskuragarri dagoen azken balioa		2026ko helmuga
1. 18-34 urte bitarteko gazteen emantzipazio-tasa	% 32,9	(2021)	>% 40
2. Emantzipatzeko batez besteko adina	29,7 urte	(2021)	<29 urte
3. 16-29 urte bitarteko gazteen okupazio-tasa	% 42,3	(2022)	>% 45
4. 16-29 urte bitarteko gazteen langabezia-tasa	% 15,0	(2022)	<% 14
5. Aldi baterako kontratua duten 16-29 urte bitarteko gazteen ehunekoa	% 55,7	(2022)	<% 50
6. 16-29 urte bitarteko gazteen lanaldi partzialeko tasa	% 32,3	(2022)	<% 30
7. 18-29 urte bitarteko gazteen hileko batez besteko soldata garbia	1.210€	(2021)	>1.300 €
8. Pobrezia errearen tasa gazteen etxebizitzetan	% 15,3	(2020)	<% 15
9. 15-29 urte bitartekoen osasunarekiko gogobetetasuna	7,8 puntu	(2022)	>8 puntu
10. 15-29 urte bitartekoen antsietate- eta depresio-sintomen prebalentzia	% 8,3	(2018)	<% 8
11. 15-29 urte bitarteko gazteen substantzien abusuagatiko tratamendu-hasieraren tasa	1,4x1000	(2020)	<2 x 1.000
12. 18-24 urte bitarteko gazteen eskola uzte goiztiarra	% 4,8	(2021)	<% 5
13. 30-34 urte bitarteko gazteen goi-mailako hezkuntzako titulazioaren ehunekoa	% 62,9	(2021)	>% 60
14. Emakumeen ehunekoa zientzian eta teknologian graduatutako 35 urtetik beherako pertsona guztiekiko	% 33,3	(2021)	>% 35
15. 15-29 urte bitarteko gazteen hirueletasun-tasa	% 49,3	(2019)	>% 55
16. 16-24 urte bitarteko gazteen lagunarteko euskararen erabilera	% 37,8	(2021)	>% 38
17. 15-29 urte bitarteko gazteen kirol-praktika erregularra	% 56,4	(2021)	>% 40
18. 15-29 urte bitarteko gazte-boluntarioen ehunekoa	% 11,5	(2021)	>% 60
19. 15-29 urte bitarteko emakumeen aurkako indarkeriaren tasa	8,6 x 1.000	(2021)	>% 12
20. 15-29 urteko emakumeen artean gaez bakarrik ibiltzeko beldurra	% 72,1	(2022)	<% 50
21. Lana lortzeko desberdintasunaren pertzepzioa, 15-29 urte bitarteko emakumeak	% 62,7	(2022)	<% 50
22. 15-29 urte bitarteko gazteen bizikleta bidezko mugikortasuna	% 23,8	(2022)	>% 25



5.

ERANSKINA: 2022ko EBALUAZIOA ARDATZ,
ARLO, HELBURU ETA JARDUKETA-ILDOEN
ARABERA

2022ko ebaluazioaren kontrol-taula Eusko Jaurlaritzaren V. Gazte Plana



1. ARDATZA: EMANTZIPAZIOA (BIZI)

ARLOA: ENPLEGUA

1. ARDATZA: EMANTZIPAZIOA (BIZI)

ARLOA: ENPLEGUA

Helburu estrategikoa: Gerturatzeko eta abiadura handiagoa lortzea hezkuntza- eta lan-arloaren trantsituan

Jarduketa-ildoak: Prestakuntza lan-merkatuaren eskaerari egokitzea

Ekintzaren izena	Burututako ekintza	Betetako helburua	Aurreikusitako aurrekontua 2022	Aurreikusitako aurrekontua 2022 gazteei zuzenduta	Gauzatutako aurrekontua 2022	Gauzatutako aurrekontua 2022 gazteei zuzenduta	Munta adierazlea	Xede-balioa	Lortutako balioa
STEAM (Zientzia, Teknologia, Ingeniaritza, Artea eta Matematikak) arloetan berrikuntza-proiektuak egitea	Bai	Bai	693.750 €	693.750 €	693.750 €	693.750 €	Parte hartu duten ikastetxeen kopurua	162	225
Lanean hasteko azterketa - LH eta Unibertsitateak	Bai	Bai	350.000 €	350.000 €	260.000 €	260.000 €	Egindako txosten/azterketen kopurua	112	112
Diru-laguntza Deustuko Unibertsitateari	Bai	Bai	166.138 €	166.138 €	166.138 €	166.138 €	Artatutako pertsonen kopurua	450	621
Diru-laguntza Mondragon Unibertsitateari	Bai	Bai	87.482 €	87.482 €	87.482 €	87.482 €	Artatutako pertsonen kopurua	250	271

Jarduketa-ildoak: Prestakuntza-sistema dualaren garapen integrala

Ekintzaren izena	Burututako ekintza	Betetako helburua	Aurreikusitako aurrekontua 2022	Aurreikusitako aurrekontua 2022 gazteei zuzenduta	Gauzatutako aurrekontua 2022	Gauzatutako aurrekontua 2022 gazteei zuzenduta	Munta adierazlea	Xede-balioa	Lortutako balioa
Hezibi programa: prestakuntza eta lana txandakatzea 30 urtetik beherako langabetuentzako. Prestakuntzarako eta ikaskuntzarako kontratu bat sinatzen dute	Bai	Bai	3.110.000 €	3.110.000 €	1.251.686 €	1.251.686 €	Kontratu kopurua	1.000	785

Jarduketa-ildoak: Talentua itzultzen eta erakartzen laguntzeko programak ezartzea eta indartzea

Ekintzaren izena	Burututako ekintza	Betetako helburua	Aurreikusitako aurrekontua 2022	Aurreikusitako aurrekontua 2022 gazteei zuzenduta	Gauzatutako aurrekontua 2022	Gauzatutako aurrekontua 2022 gazteei zuzenduta	Munta adierazlea	Xede-balioa	Lortutako balioa
Ameslariak programa: Gazteak atxiki, erakarri, itzuli eta konektatzeko ekimenak.	Ez	-	350.000 €	350.000 €	-	-	Gazte onuradunen kopurua	20	-
Langileak itzultzeko eta erakartzeko laguntza-proiektu berriak	Ez	-	200.000 €	200.000 €	-	-	Gazte onuradunen kopurua	40	-
Diru-laguntza izenduna Deustoko Unibertsitateari, gazte-ibilbideei buruzko ezagutza kudeatzeko programa garatzeko.	Ez	-	50.000 €	50.000 €	-	-	Jarduketaren betetze-maila: 0-100	100	-

Helburu estrategikoa: Kalitatezko enplegua duten gazteen kopurua handitzea

Jarduketa-ildoak: Lehen lan-esperientziak bultzatzea

Ekintzaren izena	Burututako ekintza	Betetako helburua	Aurreikusitako aurrekontua 2022	Aurreikusitako aurrekontua 2022 gazteei zuzenduta	Gauzatutako aurrekontua 2022	Gauzatutako aurrekontua 2022 gazteei zuzenduta	Munta adierazlea	Xede-balioa	Lortutako balioa
Administrazio publikoetan lehen esperientzia profesionala izateko programa finantzatzeko deialdia, Europar Batasunak finantzatzeko Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan.	Bai	Partzialki	7.516.326 €	7.516.326 €	5.512.030 €	5.512.030 €	Parte-hartzaileen kopurua	403	210
Lehen Aukera programa, LHko eta unibertsitateko tituludun gazteentzat. Gazte langabeak euskal enpresetan kontratatze laguntzen deialdia	Bai	Bai	4.000.000 €	4.000.000 €	3.969.119 €	3.969.119 €	Kontratu mugagabeen kopurua	150	398
